

Kanalak:

Gure baserri eskolaren kanala, web-gune bat izango da. Uste dugu, gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio kanal egokiena eta erosoena dela. Gainera, aurten dagoen Covid egoera berri honekin, informazioa modu seguruago batean ematea erabaki dugu bezeroen segurtasuna bermatzeko. Web gune horretan, gure baserri eskolari buruzko informazio guztia agertuko da, eta gure telefono zenbakia edo helbide elektronikoa gurekin kontaktuan jartzeko.

Web-gunea guk geuk egingo dugu, eta hor beharrezkoa den informazio guztia eskainiko diegu bezeroei. Adibidez, nortzuk ziren Pikler eta Montessori, zeintzuk diren euren helburu pedagogikoak, etab. Hauek izango direlako gure baserri eskolaren metodologia nagusiak. Gure kanalari esker, bezeroei eskaintzen diegun zerbitzua jasotzeko aukera luzatzen diegu, gure web orrialdearekin gure telefono zenbakiarekin, gure sare sozialei esker edo zuzenean guregana hurbilduz.

Instagram, Facebook eta Twitterreko kontu bat sortzea ere erabaki dugu, horietan, gure baserri eskolako aldaketak, berrikuntzak eta egiten ditugun ekintza desberdinen argazkiak ikusgai egongo dira. Hau egitea erabaki dugu, egunerokotasunean erabiltzen diren sare sozialak direlako, eta errezagoa da hauen bidez baserri eskolari buruzko informazioa jasotzea zuzenean web-gunean sartzea baino. Hau da, web-gunean informazio gahiago izan arren, errazagoa da sare sozialen bidez jasotzea eta web gunean sartzekoan hori bere osotasunean izatea.